

# BERTSO PAPERAK

## HERNANIKO RUGBY TALDEARI

*Juan Mari Genua*

(1)

Berri politak etortzen dira  
tarteka egunkarian  
ta horietako bat agertua da  
gaur goizez uste gabian  
kirol aldetik sendo gaudela  
gure herri mardulian  
ekaitzikan ez ta giro ona  
dago rugby elkartian

(2)

Mila bederatziehun hirurogeita  
bostean hasitakoa  
harez geroztik eman diguzu  
maila izugarrizkoa  
onenen mailan ibili zera  
hau emaitza urrezkoa  
gaur taldea goraiapatzea  
degu derrigorrezkoa

(3)

Askotan ez da arretik jartzen  
edo ez gera oroitzen  
kirol talde bat nondik hasten den  
ta nola doan jarraitzen  
erruzko lana egin behar da  
asko ez dira aspertzen  
eskerrak eman behar zaizkate  
horrela jarrai dezaten

(4)

Errugbyrako egindakoa  
izaten dute Landare  
zelai ederra eta gozua  
hor dabilta bare bare  
han jolas leike herriko seme  
edo kanpotar izandare  
hoiek dira gure fruituak  
hoiek dira gure landare.

(5)

Mutil gogorak izaten dira  
lerdenak eta zailduak  
doai sendo hauek izateak  
dira derrigorrezkoak  
aurkariari tinko egiteko  
edo azkar pausoak  
indarrez lerdan eduki behar  
gorputzan gihar guztiak

(6)

Kirol gozua dala horretan  
ez dago zalantzarikan  
baina halare zigor kolpeak  
hor badatoz nonaitikan  
golpe frankuak edo ta "touchak"  
edo "aban" baizikan  
laster txistua jokou "señorrek"  
baldin badu aizerikan

(7)

Beida jarri ta zelebrea da  
hau da jolasteko era  
"toucha" atera eta hor dijoa  
gizona saltoan gora  
batzun artean mutila altxa  
beak baloia albora  
jokoak aurrera joan behar du  
eta paseak atzera

(8)

Nekeak neke beste saio bat  
badaukate oraindikan  
elkarri hatzaparra luzatuz  
badihoaz zelaitikan  
ta bi taldeak alkarganatzuz  
lengo lanak ahazturikan  
arrantxo ederra egingo dute  
baldin bada zer janikan